



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
209.zkia . 2008ko apirila

HONDARRIBIKO UDALA . EUSKARA BATZORDEA . DOHAIN

Opila eguna errepikatu da

www.hondarribia.org / argitalpenak / Hondarribia



JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



Tel.: 943 11 02 01
San Pedro, 33 - 20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI

TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Serapio Múgica, 5
IRUN
Tel.: 943 61 29 00

San Pedro, 12
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 20 76

Revellin, 3
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 56 45

Avda Navarra, 4
IRUN
Tel.: 943 62 37 03



HONDARRIBIKO ITSASKARI BAITA

P.º R. Iribarren, s/n - Apartado, 88 - Teléf. 943 642 788 - Fax 943 642 894
e-mail: cnhondarribi@terra.es
20280 HONDARRIBIA

Saneamentu lanak direla eta, kale desbideraketa

Bernat Etxepare kalean egin behar diren ur eta saneamentu obrak direla eta, maiatzaren 5etik ekainaren 15 arte bide bat itxi egin go da. Hona hemen jakin beharrekoa:


* Zuloaga kaletik etorri eta Irun aldera joan nahi dutenentzat ez da aldaketarik egongo.

* Sabino Aranatik datozenek, Irun kalean eskubira jo behar ko dute, eta Bidasoa pasealekutik aurrera egin Matxin de Artzu kalera heldu arte, Itsas Etxearen altueran.

* San Pedro eta Santiago kalean zamalanetan aritzen direnek ez dute inolako aldaketarik edukiko

* Autopistaz Donostira doan autobusak ere ez du aldaketarik izango.

* Gaur egun San Kristobalen dagoen autobus geltokia Bidasoa Ibilbidera pasako da, Ama Guadalupekoa ikastetxearen aurrean.



Portura sartzeko Bidasoa ibilbidetik joan beharko da

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

info@zifcomunicacion.com

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Jexux Mari Mendizabal

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Vanessa Hernández Cavero

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldzikarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK MAIATZEAN

2- IRAOLA San Pedro, 5	.943641027
9- SAGRARIO FIZ Socoa	.943 644316
16- ALMAJANO Mendelu, 26	.943 640068
19- MAYI MARTINEZ Almirante Alonso	.943 642191
20- ALMAJANO Mendelu, 26	.943 640068
21- ALAMEDA Harresilanda, 9	.943 645798
23- MAYI MARTINEZ Almirante Alonso	.943 642191
24- IRAOLA San Pedro, 5	.943641027
30- IRAOLA San Pedro, 5	.943641027

TXANDAKO OKINDEGIAK MAIATZEAN

2- Arratibel Mendelu auzoa	.943641975
9- Garmendia Portuan	.943641136
16- Martinez Kale Nagusian	.943641212
19- Arratibel Mendelu auzoa	.943641975
20- Garmendia Portuan	.943641136
21- Martinez Kale Nagusian	.943641212
23- Arratibel Mendelu auzoa	.943641975
24- Garmendia Portuan	.943641136
30- Martinez Kale Nagusian	.943641212

Mendelun perkusio tailerra antolatu da

Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuko Gune Irekiak Mendeluko Gizarte-gunean antolatzen dituzten ekintzetan gero eta gazte gehiagok hartzen du parte. Ikas Jolas programa, laugarren urtez jarraian abian jarri da azarotik aurrera astelehen eta asteazkenetan 17.00etatik 20.00etara bere ateak irekita daudelarik. Programa honek bi funtzio betetzen dituen topa gune bat eskaintzen du: alde batetik, haur eta gazteak eskola lanak burutzeko prestatuta dagoen ikasketa gela bat (17:00etatik 18:00etara) eta beste alde batetik, aisialdirako bakarrik erabiliko den esparru bat; jolasteko eta kirola egiteko tresnak eta tailerrak eskainiz, ondo pasatzeko eta entretenitzeko helburuarekin. Garatzen diren ekintzen onarpena eta funtzionamendu egokia kontuan izanik, Prebentzioko Zerbitzuak ekintza berriekein programa zabaltzea erabaki du, kasu honetan, Perkusio Tailer baten sorrerarekin.

Ondorengo modalitateak landuko dira perkusio tailer honetan:

- perkusioa
- psikomotrizitatea
- abestiak
- dantzak
- erritmo osatuak
- aisialdi alternatiboa

Tailerra apiril, maiatza eta ekaineko astearte eta ostegunetan emango da, apirilaren 22tik aurrera, arratsaldeko 17:30etatik 19:00etara. Tailerra 10-16 urteko gazteentzat dago zuzenduta. Tailer honetan interesaturik daudenak izen-emate orria bete beharko dute eta Mendeluko Gizarte-gunean (Los Planetas) entregatu apirilaren 16an arratsaldeko 17:00etatik 9:30etara edo Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuko telefonora deitu asteen zehar (**943 114000**).

Udalak Satarka eta Soroetako haur parkeak egokitu ditu



Itxura hau dauka egun Satarkako parkeak

Udalak Satarka eta Soroetako haur parkeetan egokitze lanak birutu ditu. Horrela, duela zenbait hilabete ezezagunek egindako erasoan sortutako kalteak osatuko dira.

Satarkako parkea eraberritu egin da. Haurrek asko erabiltzen zuten trena eta lurra kiskali egin ziren, eta orain berri bat erosi eta zorua aldatu egin behar izan da. Bide batez, Soroetako parkeko zorua aldatu egin da. Obraren aurrekontua 46.600 eurokoa da. Juegos Kompan enpresa izan da burutu dituen.

Aitor Kerejeta alkateak esan duenez, "eraso hura egin zuen edo zutenei esker, orain inbertsio hau egin behar izan da Satarkan. Soroetan berdina egin eta zorua aldatu egin dugu".

"Udaletik", jarraitu du Kerejetak, "urte asko daramatzagu Hondarribiko haur parkeak indartzen. Jende asko biltzen den ingurua da, haur zein guraso, eta aisialdi gunetan bilakatu dira. Ikusi besterik ez da egin behar zenbat jende biltzen den parke hauetan".

Gaur egun, haur parkeak Amute, Soroeta, Satarka, Zezen plaza, Hondartza, Txiplau, Sokoa eta Labreder-en kokatzen dira.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Flora Martin hondarribiarrak 101 urte bete ditu

Flora Martin hondarribiarrak 101 urte bete zituen atzo, igandean. Hori dela eta, Maite Pelaezek, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, zoriondu eta lore sorta bat eman zion San Gabriel egoitzean. Udala duela zenbait urte hasi zen omenaldi berezi hauek egiten, adindutako pertsona hauei esker ona erakusteko balio duelarik.



Flora Martin eta Maite Pelaez, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia

Martin Iturberen urrezko ezteiak direla eta omenaldia

Don Martin Iturbek apaiz lanetan dabilenetik 50 urte bete dituenek, datorren ekainaren 15erako omenaldi bat antolatu da. 12.30tan eukaristia bat egongo da Jasokundeko eta Sagarrondoko Andre Mari Parrokian, eta jarraian, bazkari bat ospatuko da Ardora jatetxean. 37 euro balio du sarrerak.

KUTXAn helburu honekin kontu korrante bat ireki da:

2101 0039 19 0126384015

Informazio gehiagorako, honako zenbaki hauetako batera deitu: **943 644574, 943 642993** edo **943 640658**

Merkataritza berpizteko plana abian da

Udaletxeko Areto Nagusian aurkeztu zen apirilaren 10ean Merkagune programa, Merkataritza Berpizteko Plana, Udalak datozen urteetarako sustaturiko atal garrantzitsuenetarikoa bat. Helburua, merkataritza arloko, urbanizazio, irisgarritasun, lehiakortasun, irudi eta sustapen alderdiak lantzea da.

"Plan hau eginda herriaren merkataritza arloa berpizteko diseinu berri bat burutu nahi da" dio Aitor Kerejeta alkateak, "eta horretarako Hondarribiak eta bere inguru hurbilak azken urte hauetan izan dituen aldaketa urbanistiko eta sozioekonomikoak eta etorkizunean izan ditzakeenak aztertuko ditu".

"Gure asmoa", esan zuen, "proiektu honetan merkataritza arloarekin harremana duten eragile guztiak egon daitezen da, eta horregatik Batzorde Orokorrean parte hartzeko gonbite zabala egin da. Horretarako gure ustez oso garrantzitsua da sail horrekin eta bereziki merkataritza hondarribiarrekin lankidetzan aritzea".



Merkataritza Berpizteko Plana Udaletxean aurkeztu zen

a-dos moda

Calle Zuloaga, 14
20280 Hondarribia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 11 19 69

AXOLA

INMOBILIARIA AGENTZIA

Salmentak
erosketak eta
alokairuak

San Pedro, 1 - Hondarribia
Tel.: 943 11 03 38 - 669704686 - 619411542

Herri Kanta XIX. jaialdia ekainaren 8an burutuko da

Hemeretzigarren urtez jarraian Kultura departamentuaren eskutik Herri Kanta Jaialdia ospatuko da. Ekainaren 8an burutuko da, goizeko hamaika eta erdietan Gipuzkoa Plazan. Bertan parte hartu nahi duten abesbatzek BAZen izena eman beharko dute apirilaren 30eko ordubata baino lehen, taldearen izena, zenbat partaidek osatzen duten eta zuzendariaren telefonoa adieraziz.

Parte hartu ahal izateko, abesbatzek ondoren zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte:

- Ahots berdinekoak edo mistoak izan litezke eta bertako kideak 16 urtez gorakoak izango dira.
- Abesbatza bakoitza gutxienez zortzi kidez osatuko da.
- Talde bakoitzeko kideen % 80 gutxienez, hondarribiarrek izango dira, Hondarribian jaioak edo bertan bizi direnak.

Talde bakoitzak, jaialdian zehar bi kanta abestuko ditu eta zuzendari artean aukeratuko den beste herrikoi bat ere, bai zeina parte hartzen duten talde guztiek, ikusleekin batera, abestuko baitute. Bukatzeko "Agur Jaunak" kantatuko da. Era berean herri bazkariaren ondorengo jaialdian beste bi kanta kantatuko ditu. Kanta hauek ez dute derrigorrez jaialdian kantatu gabeak izan beharrik. Jarraian koruek herrian zehar ibili beharko dute kantuz. Kanta guztiak euskal herri-kantak eta euskaraz kantatuko dira.



Eguraldi txarra zela eta iaz Portuko Elizan abestu zen

Frantziar ikasleekin elkartrukea egin du talaia ikastetxeak



Talaiaiko eta Marandeko ikastetxeetako ikasle eta irakasleak

Apirilaren 15ean Udalak harrera ofiziala egin zion Frantziako Marmande herriko Lycée Jean Moulin ikastetxetik etorritako 31 ikasle eta 3 irakaslez osatutako taldeari. Apirilaren 15etik eta 18ra Euskal Herrian egon dira Talaia BHI ikastetxearekin egindako elkartruke bat dela eta. Maiatzean ikasle hondarribiarrek bisita itzuliko diete Akitaniako Lot eta Garonne departamentuan dagoen Marmande herriko ikasleei.

Maite Pelaez Turismoko zinegotziak egin zien harrera ofiziala Areto Nagusian, ondoren hirian zehar bisita gidatu bat egin zutelarik Bidasoa Bizirik-ekin batera.



Higer Bidea, n° 6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com

ARRETXE



ERRETERIA
 Larzabal 14 • 943 34 01 82
DONOSTIA
 Zabaleta 54 • 943 28 65 72
HONDARRIBIA
 J. Alonso 7 • 943 64 27 77
 Mendelu 17 • 943 64 70 58

Lorez apaindutako balkoien lehiaketa antolatu du kultura sailak

Hirian zehar balkoiak lorez eta landarez apaintzeko ohitura sustatzeko, Kultura Sailak lorez apaindutako balkoien lehiaketa antolatu du beste urte batez. Hondarribiko hiriguneko etxebizitzan jabe eta maizter guztiek parte ahal izango dute, baita lorez eta landarez apaindutako ostalaritza nahiz merkataritza gremioek ere.

Izen ematea ez da beharrezkoa izango. Epahaimaia, urtean zehar, kalez kale ibiliko da eta bere iritzia emango du. Izen emandako balkoietako loreen kolore, apaintasun, itxura eta orijinaltasuna kontuan hartuko dira.

Denetara lau sari emango dira. Lehen hiruak etxebizitzetako zuzendutakoak, 200, 150 eta 100 euro, landareak erosteko eta trofeo bana. Laugarren saria, ostalaritza eta merkataritzako sari berezia, 200 euro eta trofeoa izango da.



Saria jaso duen balkoi bat

Polborinean bi estandarte berri jarri dira

Turismo departamentuak Polborinaren sarreran dau den bi estandarteak aldatu egin ditu. 3750 euroko kostuarekin, orain artean zeudenak ordezkatzeko dituzte, ez baitzeuden egoerarik onenean.

Esan ere Polborinak uztailetik irailera irekitzen dela, asteartetik igandera, eta bertan Bidasoa-Txingudiko turismoari buruzko diaporama bat eskaintzen da, euskara, gaztelera, frantsesa, ingelesa eta katalanez.

Gainontzeko hilabeteetan Polborina itxita egoten da, nahiz eta itxita dagoen, aurretiaz Turismo Bulegoan ordua eskatuta, ikastetxeentzat bisitaldiak antola daitezke.



Bi estandarte berrien irudi bat



**BAR
HONDARRIBI**

AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



Jatetxea
txantxangorri

San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Sokoan ia ehun zuhaitza landatu berri dira

Duela gutxi Udalak Sokoako haur parkearen inguruan zuhaitz ugari landatu ditu azken asteotan. Udaletxeko Brigadak 15 Carpe Columbre (Carpinus Betulus 'Fastigiata'), 11 Jupiter (Lagerstroemia Indica), 16 Morera Japoniar (Morus Alba 'Kagayamae') eta 80 Fotinia seto (Photinia Serrulata) landatu ditu. Parkearen albo batean, 160 arrosoño ipini dira.

Haur parketik hurbil, Sokoako biribilgunean, palmera bat (Washingtonia Filifera) eta 3 palmito (Chamaerops Humilis) kokatu dira, bertan urteetan egon ondoren, berreskuratu egin direlarik.



Landatu berri diren zuhaitzen irudi bat

Gazteria departamentuak aurten ere Udaleku Irekia antolatuko du

Gazteria departamentuak antolatuta, uztailean Udaleku Irekia programa antolatuko da. 1997. eta 2003 bitartean jaio-tako haurrak (5-11 urtekoak) eta Hondarribian bizi diren zuzendutako ekimena, euskaraz egiten da. Partehartzaileek bere taldekide zein monitoreekin euskaraz jarduteko gai izan behar dute.

Uztailaren 1etik 30era, 200 neska-mutil astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara arituko dira programan. Puntala, Satarka eta Saindun egiten da eta kuota 70,00 eurokoa da lehen seme-alabarengatik eta 59,00 € bigarrenetik aurrera.

Aurretiko izen-emateak apirilaren 21etik 30era egin beharko dira. Izen-ematea egiterakoan Udaleku Irekian parte hartu nahi duen umearen datu hauek emango dira: izena, bi abizenak, jaiotze data, helbide osoa, telefonoa eta ikastetxea. Anai-arreba bat baino gehiago izanez gero izen-ematea bakarka edo taldean egin liteke.

Gazte Informazio Bulegoan egin behar da izenematea, San Pedro kalea, 15 - 943 644752an. Astelehenetik ostiralera 16:30etatik 20:00etara irekitzen da eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara. Zozketa maiatzaren 6an burutuko da. Ondoren, behin betiko izen-emateak maiatzaren 12tik 17ra egin beharko dira.



Izenematea Gazte Informazio Bulegoan egin behar da

JATETXEA
LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK
ORDU BETEAN

Itsasargi 3
 Tel. 943 64 57 65
 20280 HONDARRIBIA

Udaleko eta Foru Aldundiko kirol ordezkariak lan bilera izan dute

Xabier Tife zinegotzia Iñaki Galdos eta Iñaki Ugartebururekin bildu da

Kultura eta Kiroletako zinegotzi den Xabier Tifek lan bilera egin dute Foru Aldundiko Kirol Diputatu den Iñaki Galdos eta Kiroletako Zuzendari den Iñaki Ugartebururekin. Legealdi berriko Udala eta Foru Aldundiaren arteko lehen bilera izan da, eta helburu nagusia Hondarribiko Udalak datozen urteetan kirol azpiegiturretan garatu beharreko ekimenen azterketa izan da.

"Foru Aldundiak kirol instalazioetarako daukan inbertsioen planaren bidez guk dauzkagun proiektu nagusiak uztartzea izan da bileraren xedeetako bat" dio Xabier Tifek. "Hondarribitik Aldundira zenbait ekimen bidali genituen, beraien inbertsio plan honetaz baliatu ahal izateko aurrera egiteko".

Legealdi honetan zehar Udalak garatu ditzazken proiektu garrantzitsuenak, Amuteko Kirol Zonaldea eta Bela Eskola dira. "Amuteri dagokionez, gaur egun auzo honetako kirol gunea oso egoera kaxkarrean dago, ondorioz Kirol Sailekook defizit hau konpontzeko asmoa dugu. Bela Eskolaren inguruan aldiz, arazoa beste bat da. Gure hirian belan aritzen diren pertsonak asko dira, eta horretarako gaituta dagoen lekua ez dago batere ongi. Kirolaren praktika egoera onenean eskaini behar dugu, ondorioz, Bela Eskola guretzat lehentasuna duen zerbait da" dio Tifek.

Kirol eta Kulturako zinegotziaren hitzetan, "Foru Aldundikoek egindako harrera oso ona izan da, bileran jorratutako proiektuak arretaz aztertu eta begi onez ikusi dituzte. Denetara zortzi proiektu aurkeztu dizkiegu. Nahiz eta kopuruak zehaztu ez diren, Iñaki Galdos eta Iñaki Ugarteburuk jarrera egokia erakutsi dute, baita bilera hauekin jarraitze-ko asmoa ere".



Tife, Galdos eta Ugarteburu bileraren une batean



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEA

San Pedro, 6
Tel. eta Faxes: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Udalak eta Komertzianteen Elkarteak akordio bat lortu dute TAO txartelen inguruan

La Muelako aparkalekuan utziko dituzte autoak merkataritza ordutegian

Aitor Kerejetak Hondarribiko Alkateak eta Juan Mari Altunak Hiri Segurtasuneko zinegotziak bilera bat izan zuten apirilaren erdialdera Higer Komertzianteen Elkartearekin eta inguruko beste zenbait dendarekin Portuko aparkalekuen aferaren inguruan konponbideak bilatzeko asmoz.

Bileran TAOren filosofia eta konponbidez jardun ziren eta zenbait alternatiba aztertu ziren. Hitzordua giro egokian garatu zen eta ondorio bezala, merkatariei La Muelako aparkalekuan autoa uzteko aukera eman zitzaien, ekainaren 15ean inguruko TAO sistema abian jartzen denean. Akordio honen ondoren, Udalak Portuko merkatarientzat aparkatzeko txartelak emango dizkie, honako baldintza hauekin:

- Establezimendu bakoitzeko txartela bat
- Astelehenetik ostiralera, 8.00-20.00 arteko ordutegi komertzialean
- Jaiegun eta zubietan ezingo da txartela erabili



"Merkatariek Benta Zaharreko aparkalekua dagoen bezala mantentzeko beharra ikusten dute, etor daitekeen bezeroak tokia izan dezan" dio Aitor Kerejetak. "Merkatari eta komertziantee bileran erakutsi duten jarrera positibo eta konstruktiboa eskertu nahi dut" dio Alkateak. "TAO beharrezkoa dela ikusi dugu guztiok, eta akordioa erreza izan da. Horrela, bere autoa egiatan beharrezkoa duten merkatariek aparkatzeko tokia izango dute, eta Portuko TAO gunea eta Benta Zaharra mantentzen dugu bizilagun eta etor daitezkeen erosle eta bisitarientzat".

Aparkaleku hau erabili ahal izango dute merkatariek

Gazteria Sailak Uda Abentura antolatu du

Datorren uztaillean Uda Abenturaren edizio berri bat ospatuko da Hondarribian. Gazteria Sailak antolatuta, 1994, 1995 eta 1996 urteetan jaiotakoei (12, 13 eta 14 urtekoak) zuzenduta dago. Programa euskaraz egingo da, eta parte-hartzaileek bere taldekide zein monitoreekin euskaraz jarduteko gai izan behar dute.

Bi txanda egingo dira, uztailaren 1etik 14ra eta 15etik 30era, bakoitzean 36 neska-mutilek parte hartuko dutelarik. Goiz eta arratsaldeko ordutegia izango du eta kuota 135 eurokoa izango da.



Gazte askok parte hartzen du Uda Abenturan

Aurretiko izen-ematea maiatzaren 5etik 10era egin beharko da, eta parte hartu nahi duen gaztearen datu hauek emango dira: izena, bi abizenak, jaiotze data, helbide osoa, telefonoa eta ikastetxea. Izena Gazte Informazio Bulegoan eman beharko da, San Pedro kaleko 15.ean. Ordutegia, astelehenetik ostiralera 16:30etatik 20:00etara da eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara.

Zozketa, maiatzaren 16an izango da. Ondoren, behin betiko izen-emateak, maiatzaren 21etik 30era egin beharko dira.

Aise
Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala
Juan Laborda 2, behea
20280 Hondarribia
Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92
E-mail: aisebidasoa@euskalerria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

"XENDA IBILBIDEEN EDIZIO BERRITUA ESKAINI NAHI DIOGU INTERESA DUEN EDONORI"



Berrotaran, Zuhaitz Egunaren aurkezpen ekitaldian

Gregorio Berrotaran, Nekazaritza eta Nekazal Garapeneko zinegotzia dugu hizlari honako honetan. Duela egun gutxi ospatu dela Zuhaitz Eguna, eta horrekin batera, Xenda ibilbideek edizio berria banatu zen Oiamungo Kaskoan. Jendeak asko estimatzen duen gida omen da, eta mila ale egin dira mendian eta naturan paseatzeko interesa duen edonori zuzenduta. Jakin dezagun zerbait gehiago honen inguruan.

Nolatan egin da Xenda ibilbideen edizio berria?

Aurrekoa 2000. urtean egin genuen, eta beste bat egiteko beharra ikusten genuen. Ez dugu berdina egin, zenbait aldaketa gehitu dizkiogu, adibidez, bide berri bat dago, K xenda deiturikoa. Guadalupen du irteera eta helmuga, eta santutegiaren aurrean dagoen aparkalekutik aterata Purgatoriotik Alarguntzaraino joaten da, ia Gaintxurizketa aldean. Han 180 graduko itzulia eman eta ondoan dagoen beste bide batetik bueltatzen da berriz irteera puntura. 10'7 kilometroko luzera dauka, eta oso toki politan gainera. Benetan gomendarria da.

Ze berritasun ditu edizio berriak?

Esan bezala, xenda berri honetaz gainera, testoak euskaraz, erderaz eta frantsesez jarri ditugu, azken hauek baitira gehien erabiltzen dutenak. Eskertuko dute ziur bere hizkuntzan jartzea. Zenbait argazki ere berri egin ditugu, eta Hondarribiko zuhaitza, zuhaixka eta sendabelarren berri ematen duten gidak ere gehitzen dira. Nik uste oso gauza polita egin dela eta jendeak erabili egingo dituela, hori da behintzat helburuetako bat.

PANADERIA - OKINDEGIA
ARRATIBEL



" EGURREKO LABEA "

Barrio Mendelu - C/ Zubieta, 12
Telf: 943 64 19 75 - HONDARRIBIA



Cafetería - Restaurante
faro de higer

PLATER KONBINATUAK - EGUNERO MENUA
ARRAINAK - HARAGIAK

Carretera del Faro, 58 - Teléfono 943 64 01 94
20280 HONDARRIBIA

Beste nonbait egiten al da ekimen hau?

Nik dakidanez ez. Hondarribiko Udalean ikusi dut bakarrik horrelako zerbait. Gure herrian ibiltzeko dauzkagun parajeak ezin hobeak dira eta beharrezkoa ikusten nuen horrelako zerbait egitea, jendeak kirol pixkat egin dezan, gure inguruak hobeto ezagun ditzan eta naturarekiko errespetua handitu dezan.



Gregorio Berrotaran, Alkartasunako frontoia ireki zen egunean

Jendeak errespetatu egiten al ditu bideak?

Bai. Beti dago denetatik, bizitza honetan bezala, baina mendira edo landa bide hauetara hurbiltzen denak errespetatu egiten du, hirian baina gehiago, ziur. Alde horretatik ez dago kexatzeko arrazoirik.

Zenbat kilometro batzen dira xenda guztietan?

Denetara bederatzi bide bereizten ditugu, eta 68 kilometro. Faroa, Guadalupe, Justiz eta Alarguntzaren artean banatzen dira bideak, eta ikusi besterik ez da zer den bertan aurkitu dezakegun guztia.

Non topa daiteke argitalpen berri hau?

Ohiko liburudendetan jarriko ditugu salgai eta Turismo Bulegoan ere. Prezio merkean jarriko dira, oraindik ez dakigu zehazki zenbatean. Argi daukaguna da doainik jartzen badugu, jendeak ez

dituela behar bezain ondo zaintzen. Hori denoi gertatzen zaigun zerbait bat da.

Zuhaitz Egunean banatu zenituzten Xenda hauek, ez?

Horrela da bai. Jaio berriei ez zaie banatzen, eta bai makila ematen diegun gazteei. Iaz zazpi urte bete zituztenei eman genien makil bana, baita xenda hauen ale bat ere. Gazte

hauengan mendi zaletasuna eta mendiarekiko errespetua lortzea da bilatzen duguna, eta nik uste bide egokian gaudela. Askok eskertzen dute oparitxo hau.

Hortaz gain, zenbait nekazal bide egokitu dituzue ere.

Bai. Ez dauka mendiarekin zerikusirik honek, baina Nekazaritza Departamentutik ezinbestekoa ikusten dugu hiri erdigunetik pixkat aldeni dauden bide hauek egokitzea, gero eta auto gehiagok erabiltzen dutelako. Bide batez, ibiltzera joaten denak bideak egoera onean aurkitzen baditu, ziur gehiagotan joango dela, ziurragoa baita guztientzat.

Urte asko daramazki Gregorio Berrotaranek Udaletxean, Nekazaritza arloko erantzule bezala. Proiektu asko dauka buruan aurrera eramateko, baina hobe oraindik ez aditzera ematea, forma gehiago hartu arte. Aurkeztu berri diren Xenda ibilbide hauek mendizaletasuna pizteko. Ea hala den.

podologo

Unai Ortiz

kiropodia - quiropodia
ortopodologia - ortopodologia
ordenagailu bidezko miaketa
biomekanikoa
exploración biomecánica
computerizada

Matxin de Arzu 10, 2 bajo
20.280 HONDARRIBIA

Tel: 943 111 946
www.unaipodologoaa.com

EUSKO-MEKO

**Boogies
QUADS
125 cc**

1.690 €

1.290 €

Txiplao nº 7 - Telf 639 676 676
Hondarribia

Auzolana

Goierritik itsasertzeko herrira etorri izanak eragin bizia izan du nigan. Lurgintza giroan hazia eta hezia nintzenez, jaioterriko lanbide eta hizkuntzak nagusitasun jakin batez jantzia nentorren. Leku-aldaketa honek, egia esan, aberastasun handia eskeini dio nere iza-teari.

Berritzen ez direnak zaharkitu egin ohi dira. Hala gureetan ere, lanbideari dagokionez. Bidezko eta legezko izanik, aberasgarri gainera, gauza bat bera adierazpide desberdinez izendatu ahal izateak, hizkuntza beraren ugarikotasuna adierazten duela esango nuke. "Auzolana" Goierriko nekazariak esango dugu, "Fagina" ikasi dut Hondarribikoen ahotik. Basagoietako emaitzak etxeratu ahal izateko, hamaika aldapa gaizto gainditu behar izaten genituen garai haietan. Gaurregun bestelakorik da.

Egur, enbor, garo, orbel... idi-parea izaten zuten motor geldoa, garraisi itoaz beren nahigabea adierazten zuten gurdardatz ikaratuak. Guzti hori, aldian aldian, gero eta urratuagoak geratzen zihozten gurdibide, herri-bide edo estrata izaten ziren garraio-bide.

Bide horiek konpondu behar izatetik zetorren aipatzen ari naizen izena, auzolana.

Udazkena hurbiltzearekin batera, baserriz baserrirako albisteak, bideak berritzera joan zedin, ordua eta lekua adieraziko zion, bide hura erabili behar zuen auzotar bakoitzari. Auzoak biltzen ziren, auzolanera noski.

Bakoitzak bere tresna eta ahorako entretenigarria eraman beharko zuen, ardoa Udaletxearen kontura. Zereginik izaten zen bide trakets haietan. Aldapa batetik, bihurgune deabruzkoak bestetik. Behin baina gehiagotan gertatu izan zitzaizgun, neroni testigu, halako gainbeherakada oker baten ondorioz, garoz edo orbelez kargatutako gurdia irauli izatea.

Egia da bai, gurdia irauli ez zedin, bideak bihurria zuenaren albotik, sardea erantsiz, bi edo hiru gizasemek ahaleginak jotzen zituztela, orbelezko zama triste hari zutik eutsi nahian. Ez zuten lortzen, ordea, gaizki berdindua zegoen harrikroska madarikatu haren azpikeria gainditzea. Hango zipriztiñak eta txinpartak zeruari berari ere suharraziko ziotketen. Ez zen harritzekoa.

Auzolan ez egokitutako bidean, nola gerta zitekeen horrelakorik? Zein zen errudun, bidegune hura zuzentzea bere gain hartu zuena?

Batak besteari aitzakia bota, baina gurdia iraulia eta zoru kroskatuan etzana.

Dena den, bideak konpondu edo ez konpondu, hiru edo lau arratsaldetako orduak gustora aski igarotzen zituzten inguruko baserritarrek. Baziren bai, bat edo beste, aitzurrari neke gehiegirik ematen ez ziotenak, zato-ordua ustutzeko ere bere denbora behar izaten bait da, eta halakoek, gehienetan zerura begira ikusiko zenituen, eztaariari, egokitasunez xurrupe-gaia emateko aitzakitan...

Bizialdia ez da lana egin behararen zelaietan erabakitzen. Lanak bere lekua du baina, gizakiok, elkarrekiko harremanak gozotasunez dastatzeko egokierak ere beharrezko ditugu.

Auzolaneko arratsaldeak eskaintzen zuen, herri guztiko nekazariak elkarrekin bildu eta, lagunarte jatorrean, hitz-trukean, hemengo eta hango gertakizunen berri elkarri eman ahal izateko aukera.

Ni Hondarribira etorri nintzenean eta nekazariekin topatu nintzenean, harridura eta berri-usainak besarkatu ninduen, "Fajina" hitza entzun nuenean. Atsegin izan zuten nere belarriek horrelako hitz gozoa entzutean. Gaur egun, ez dakit norainoko zelaia duen nekazarien artean lan mota honek. Zorionez, urrutieneko mendi-etxeraino errepide egokiak eginak daude.

Gai hau erabiltzean, bi pentsagai datozkit burura:

Bata, gure artean galtzen dihoazen hitzak eta beren esan nahiak gordetzen saiatu behar genukeela.

Bestea, elkarrekin pake gozoan biltzeko izan zen lan-mota hura galtzeak, ez diezaizkiola ateak itxi, elkarrekin biltzeko aukera berriak eta gaurkotuak sorteari.

Bi hitz apalek eraman naute, udazkeneko arratsaldetan itsatsi zitzaidan garo-usain gozoa, bizitzako udazkenean, oroimen-kabian pake-usain berdintsua erbertitzera: AUZO-LANA eta FAJINA.



Martin Iturbe

TRUCK
DISCOTECA
HONDARRIBIA
Foru Kalea z/g

PUB
Kai zahar
Almirante Alonso, 12
kai zahar

ARRAUN ELKARTEA
GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BUILDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAIRUA
ETA GORDELEKUA

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN" !!!

Hondarribia Arraun Elkartea - Tel. 943 64 01 61 - 20280 Hondarribia

Olearso Kultur Guneak kontzertu erraldoia antolatu du

Barricada, Doctor Deseo, Ken Zazpi, Amparanoia eta Asian Dub Foundation etorriko dira besteak beste

Maiatzaren 2 eta 3an Hondarribira zortzi mila lagun erakartzea espero dute Olearso musika jaialdiko antolatzaileek. Bisitari guzti horiek hirian hartzeko azpiegitura eta antolakuntza guztia "prest eta egokia" izango dela esan du Xabier Tife, Kultura zinegotziak. Tife, jaialdi hau Udalaren babesarekin antolatuko duen Olearso Kultur Guneako kide diren Eñaut Balentziaga eta Garikoitz Arroyorekin batera azaldu zen prentsaurrekoan.

Olearso Kultur Guneako kideek, bestalde, maiatzaren 2 eta 3ko jaialdian zortzi mila lagun inguru biltzeko helburua dute eta dena ondo joan dadin, 65 lagunekoa lan-taldea prest daukate. Kontzertuetarako, "80 metroko luzera eta 30eko zabalera izango duen karpa jarriko da hondartzako aparkalekuan autokarabanak jarri ohi diren lekuan", azaldu zuen Eñaut Balentziagak. Gainera, gauez ez bakarrik baizik eta egunez ere ekitaldiak izango dira Olearso jaialdian: Graffitiak, talde txikiagoen doako kontzertuak, txaranga, taberna eta salmenta postuak, besteak beste.

Udal arduradunaren hitzetan, "bagenuen aspaldi hondartzako inguruan kontzertu handiren bat edo antolatzeko asmoa. Honetan genbiltzala, Olearso Kultur Guneetik etorri zitzaizkigun beraiek zeukaten ideia aurkeztera, dudarik gabe, guk



Ezkerretik eskubira, Garikoitz Arroyo, Xabier Tife eta Eñaut Balentziaga

geneukana baino asmo handikoagoa. Bide horretan elkartu gara bi parteak jaialdi hau bultzatzeko".

Xabier Tiferen ustetan, "Hondarribira jendea erakarri behar dugu urte osoan zehar antolatuko diren ekintzekin eta Olearso jaialdi hau, adibidez, maiatzeko zubian egingo dena gainera, horretarako tresna egokia iruditzen zaigu".

Udalak ez du espero egun horietan jaialdira eta hirira oro har etorriko den jendetza dela eta arazo berezirik edo sortuko denik. "Dena prest egongo da, bai Udalak jarri behar duen azpiegitura aldetik eta baita barne antolakuntzatik. Esfortzu esanguratsua da, baina ondo eraman ahal izango dugu hiri osoarentzat onuragarria izango den jaialdi hau", esan zuen Xabier Tifek.

164 ZUHAITZA LANDATU ZI

Apirilaren erdian Oiamungo Kaskoan Zuhaitz Egunaren edizio berri bat ospatu zen. Aurten, 164 izan dira landatutako kopurua (lizarrak eta gereziak), 92 neska eta 82 mutil. Landaketa amaituta, 2000. urtean jaiotako haurrek makila bana jaso zuten.

Jaiotza kopuruak gora egin du nabarmen azken urteotan. Lehen edizioan jaiotako haurrak 117 izan ziren, 142 1996an, 123 1997an, 124 mutil eta neska 1998 eta 1999an eta 137 aldiz 2000. urtean.

2001ean 135 izan ziren landatutako zuhaitzak, 146 hurrengo urtean eta 179 2003an. Urte bat geroago, 2004an 158 zuhaitza lan-



HAURREN OIAMUNGO KASKOAN

datu ziren eta 2005ean 163. Iaz, 2006an jaioetako haurren kopurua inoiz baina altuagoa izan zen, 181 hain zuzen. Ekitaldian, haur jaio berriez gain, anai-arreba, guraso eta aiton-amonak bildu ziren, baita Udaletxeko zinegotzi gehienak ere. Aitor Kerejeta alkatea eta Gregorio Berrotaran Landa Garapeneko zinegotzia izan ziren ekitaldia aurkeztu zutenak. Juan Mari Altuna, Florentxio Arrieta, Ixabel Olazabal, Maiaia Urrutia eta María Luisa Arija zinegotziak ere bertan ziren. 2007. urtean jaioetako haurren artean, izenik ohikoenak Unai, Aimar eta Ion dira mutilen artean eta Nora, Irati eta Ane nesken artean.



Muliateko etxebizitzen eraikuntza 2009. urte bukaeran hasiko da

Aitor Kerejeta alkatea eta Ion Elizalde Hondarribia Lantzeneko gerentea prentsaurrekoan azaldu dira Muliateko etxebizitza publikoen promozioaren berri emateko. Bi zinegotziek etxebizitzen zozketa 2010. urtean izango dela zehaztu dute.

"Udala gainean daukagun udarako lurren jabea izatea espero dugu, bertan hiru lursailen jabetza izango baitu, aurreko legealdian lortutako akordioa dela eta" dio Aitor Kerejetak. "Lursailetakoa bat Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari emango zaio bertan ikastetxe bat egin dezan".

Muliateko inguru honetan 400 etxebizitza egitea aurrakusten da, eta horietatik 260 publikoak izango dira eta 140 merkatu librean saltzeko. "Etxebizitza publikoen eraikuntza bi fasetan egingo da, lehenean 195 eta bigarren batean 65, horrela beharrezkoa izango duten bi belaunaldientzat etxebizitzak eskaintzea lortuko dugularik. Orain egingo diren 195 etxebizitzetatik, zati bat alokairuan aterako da Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarekin batera" dio Kerejetak.

"Eskuartean ditugun epeen arabera, aurreproiektua eta proiektua 2009ko udaberrirako prest egotea espero dugu, gero esleipena eta lanen hasiera urte bereko udazkenerako hasiko liratekelarik. Etxebizitzen baldintza-agiria 2010. urte haserarako prestatuko lirateke, eta urte horretan zehar eskatzaileek zerrenda osatu, horrela 2010. urte amaieran etxebizitzen zozketa egiteko".

Obrak amaitu eta etxebizitzen giltzak ematea 2011. urteko bigarren erdian egia bilakatzea espero du Udalak.

"Ulertzen dugu jende asko dagoela etxebizitza hauek noiz egingo diren zain" dio Ion Elizalde alordeak, "baina birpartzelatze-proiektua asko atzeratu egin da. Udalekook ahal duguna egiten ari gara epeak murriztu daitezken. Zer nolako beharra dagoen jakin badakigu, baina onartu egin behar da promozio honen zailtasunak oso handiak direla".



Kerejeta eta Elizalde prentsaurrekoan



Ezkerrean merkatu libreko etxebizitzak, eta eskubian babes ofizialekoak

mandragora studio

t. 943 644 639 m. 629 564 723
unai.mandragorastudio.com
www.mandragorastudio.com
matxin de arzu 14 20280 hondarribia

eukeni optika

optiko - optometristak

San Pedro, 57.

20280 Hondarribia - Gipuzkoa

943 643 805

Bixkundin telefono mugikorren antenen neurketak egin dira

Helburua legediak dioena errespetatzea eta limiteak gainditzen ez direla ziurtatzea da

Ion Elizalde Lehen Alkateordeak eta Ingurugiroko zinegotziak hartutako konpromezuetako bat telefono mugikorren antenen emisioen inguruan neurketak egitea izan zen. Apirilaren amaieran egin dira neurketak Bixkundin eta Gornutzen, eta aurrerago Paradorean eta Kostan burutuko dira.

"Labein-Tecnalia enpresarekin egin ditugu neurketak" dio Elizalde. "Kalean bertan eta etxebizitzetan egin dira, eta legeak diotena ez dute inondik ere gainditzen. Hala ere, Udalaren Ingurugiro Sailaren asmoa, datu guztiak eskuartean ditugunean bilera ireki bat deitzea da jendeak behar moduan ikus ditzan".

Udaletik hartutako beste konpromezu bat telefonia mugikorreko operadoreek aurrerantzean ezinbestean bete behar duen udal ordenantza bat idaztea da. Ordurarte ez zaie operadoreei inongo baimenik emango.

"Edozein kasutan" dio zinegotziak, "zuhurtziaz jokatu dugu ordenantza egiterako orduan, gehienezko emisioei dagokienez. Gure helburua ordenantza garantista bat egitea da, teknologia honen baliabideak erabili ahal izateko, eta alde guztiek onartutako emisioak egongo direlarik".

Gida bat egitea

Elizalde buruartearen daukan beste ideia bat esku-gida bat egitea da, telefono mugikorra behar moduan erabili ahal

izateko. "Askotan antenei garrantzia ematen diegu eta ez dugu kontutan hartzen telefonoa bera, hau oso garrantzitsua baita emisio mailaren gorakadan".

Udaletxean garrantzia ematen zaio ere ordenantzei epaitegietatik ematen zaien ikuspegiari. Hori dela eta, maiatzean zehar bilera ireki bat deituko da eta bertan Xabier Ezeizabarrena ingurugiroan espezializatutako abokatua etorriko da azalpenak eman ahal izateko.

"Gure helburua informatzea da eta horrela hiritarrak lasai egon daitezela, bere Udalak garbi eta intentzio onez jokatzeko duela. Agenda 21 garatzen dugunean, telekomunikazioen alorra gai garrantzitsu bat izatea nahi dugu" amaitu du Elizalde.



Lehen neurketak Bixkundin egin ziren

ILEAPAINDEGI MISTOA

LAIDA

San Pedro Kalea, 71 - behea
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 64 13 59
(Aurretiaz ordua eskatu)

Ireki Berria !
Ireki Berria !

MA SAI

estetika
masai
zentrua

Iratz Arriabarrena

San Pedro 30 20280 HONDARRIBIA
(sarrera Zuloagatik/entrada por Zuloaga)

t 943.646.320



Kofradiaren historia apur bat

ARRANTZALEEN KOFRADIAN MARTXOAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (Trachurus trachurus): 341,60 kilo.

Berdela (Scomber scombrus): 3.058.158,20 kilo.

Makarela (Scomber japonicus): 21,00 kilo.

Muxar handia (Diplodus sargus): 108,70 kilo.

Erla (Lithognathus mormirus): 568,40 kilo.

Zapataria (Gerris): 15,20 kilo.

(Fermin Olaskoagak jasotako datuak)

San Pedroko Itsagizonen Kofradiak Hondarribiko itsasontzietan lan egiten duten arrantzaleak elkartzen ditu. Kofradiak bere estatutuak Arrantzaleen Kofradien 16 / 998 Legera egokitu zituen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2001/09/11n hartutako ebazpenaren arabera.

Irabazi asmorik gabeko erakunde honen helburu nagusia Kofradiako kideen beharrei erantzuna ematea da. Hornidura, tresna, izotza, aholkularitza, erakundeekiko harremanak eta abar. Kofradiak arrantzalea bere lan gogorrerako ahalik eta ondoen prestaturik egon dadin lan egiten du, talde honen interes eta beharrak zainduz.

Kofradiako instalaziotan arrainaren deskarga lanak eta enkantea, izotz eta gasolioaren banaketa eta bestelako portu zerbitzuak burutzen dira.

San Pedro Itsasgizonen Kofradia 1361. urtean sortu zen. aurretik bazegoen arrantza handia, baina urte horretan lortu zuen erakundeak garaiko agintarien onarpena.

Ordutik hona, ugariak izan dira arrain salmentarako tokiak. 1997an gaur egungo Kofradiaren behin betiko egoitza zabaldu zen.

Balearen ehiza

Balearen ehizaren lehenengo datu historikoak, euskal arrantzaleak ditu aitzindari. Honi buruzko lehen dokumentazioa 1200. Urteko abenduaren 31koa da. Honetan Alfontso VIII. Erregeak urtero bale bat eskatzen zien arrantzaleei.

Datu gehiegi ez dagoen arren, badirudi balearen ehiza oso errotua zegoela gure arrantzaleen artean, garai horretako armari eta zigiluetan agertzen diren irudiak lekuko.

Pariseko Nazio Agiritegian 1335ko Hondarribiko zigilu bat dago gorderik, bertan arrantzaleak balea arpoiaz jotzen agertzen dira, Kofradiaren armarrarian agertzen diren bezala.



pie de foto

La **bacaladera** S.A.U.



San Markos eguna ospatu berri da

Apirilaren 25a egun handia da Bidasoa bailaran. San Markos eguna izanda, Opilla Eguna, haur, gazte zein guraso-entzat egun berezia da. Ikusi besterik ez da Parrokia nola

bete zen Don Martinen bedeinkapena entzuteko. Gero Guadalupera igotzeko ohitura dago, eta aurten, hondartza-ko ingurua ere jendez josi egin da.



Opilak bedeinkatzen den unearen irudi bat



Opila Eguna ez du kirol desberdintasunik egiten



Ama eta amonak nagusi izaten dira Elizan egun honetan



Egun handia da gaztetxoentzat

EXPERT
GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA



jatetxea • restaurante
erretgia • asador
itsasargi 8 • 20280 • hondarribia
tel.fax 943 644 622 • kaialde@yahoo.es

ZAZPIAK BAT

Azken urteotan egiten dugun moduan, iazko Satarka lehiaketan sarituak izan diren lanak argitaratzen ditugu. Maila oso altua duten lanak dira, gure artean etorkizuneko poeta eta idazleak izan ditzazkegunaren seinale. Oraingoan, Satarka Lehiaketaren A mailako lehen saria irakur dezakezue, Ainara Elizondo hondarribiarrak idatzia.



Ainara Elizondo

**"Kontatzen dakiten guztiei:
ongi kontatuz gero, den guzia,
bihotz batean hasi eta bestean
bukatzan den soka baizik ez baita"**

**(Patziku Perurena,
Euskarak sorginduta numeroak)**

1GO ALDIA

Bihotzaren ziztada, kilika;
arimaren zirra, zirika.
Amets baten arnasbidea, birika.

Esku bete lore San Balentinez,
zorion eguneko oparia maiteminez.

Ezerezetik sortu ohi den indarra,
nahiz zertan datzan jakin ez.

Loaren baraua, haragi gosea,
maitasun-ezten zulatuak ezin asea.

Maitasuna, mundu honetako aberastasuna.

Anpuluen erresuma, irri laburren garizuma.

2 AURPEGI

Bi aurpegi ditu bizitzak;
nola aitzinak, hala gibelak,
nola azkarrak, hala ergelak.

Bi norantza, bi itzal,
bi izakera zital.

Eskutik batera bi zalantza:
batetik, esperantza
bestetik, saminarean arantza.

Bi aurpegi ditu bizitzak,
leiho bakarra errealitatearen balkoiak;
pantailaren barruko egia erraldoiak;
besaulkitik altxa ezean
irentsiko zaituen lehoiak.

Mugitu gabe urrutira eramango zaituen bagoiak.

Bi aurpegi ditu bizitzak,
bi uztarri, bi lokarri;
hamar gose eta bost egarri.

Milaka egun euritsu,
milioika gau tamalgarri.
Pare bat une zoragarri
eta oinazea sarri.

RESTAURANTE

ARRANTZALEEN KOFRADIA

Eguneko menua, Ekitaldiak, Ibilaldi belaontzian,
Menu bereziak, Komunioak

www.navegavela.com
Bela ikastaroak

Telf.: 943 64 42 12

Paseo Ramón Iribarren, nueva lonja - 20280 HONDARRIBIA

Hemen zure opariak eros
ditzakezu; PSP, PS2,
filmeetako pertsonaiak...

Puntuak opariengatik
aldatu, Orange
txartelarekin

Etxez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

3.a, MUGARIK GABE

Udazkenaren balkoitik, bi gizon bakardadean,
elorri baten magalean,
igurtziz elkarren artean.

Maldan behera desioak, pasioak,
traizioak... tentazioak.

16.a da, dirudienez, Anjelentzat.

Garoa salatari balitz... zenbat hitz!
Belarrak ahorik balu... zenbat bekatu!

Dardo bana gorputzean, tentaldiaren ertzean,
bi tranbiek elkar jotzean.

Odolean daramate ortzadarra sutan;
bihotz gosetien grina, errealitate gordina,
maitatu nahia eta ezina.

Udazkenaren balkoitik, bi gizon bakardadean,
elorri baten magalean,
aurrez aurre, pare-parean.

Bi otso negar batean.

BEREAK ETA 5

Zurrutadaka irensten dut bizitza
bijilia garaiko betekadaz gozatuz
afalosteko kaliza.

Astelehena eginik igande
lotsaz zurbiltzen dut hainbat jende,
masailen gorria elur bihurtu arte.
Zoroen artetik urruntzen nau zentzuaren
kordelak
fikzioaren zubiak, errealitatearen etenak.
Narrasti nabil kalean, barearen era berean,

barraskiloek aurea hartu bitartean.
Alkoholaren balantza, legatzaren arrantza,
mozkorraldiaren dantza.

Euriz zarpiatzen naute ezpaineak,
isekez asetzen hainbat mingainek,
tristuraz betetzen hamaika irainek.

Tabernaren morroi den ardoaren maizter,
alferretan alfer, joka eskuin-esker,
lotan bazterrik bazter.

6. EGUNA

Egunak argiz urratu du gau iluna,
negarrak pozez itsutu ilunabarra;
gure odola, zure negarra, nire algara.

Barruan zintudan korapilatua, iltzatua,
orain, aldiz, ene begietan islatua.

Zenbat bakarrikzeta, zenbat laztan,
zenbat ordu zurekin ametsetan...

Erbesteratu zaitu denborak, garaia,
zain gintuzunon harrera alaiak,
hutsetik dakarzun esnatu nahiak.

Amodioak eman dizu bizitza,
bederatzi lehortek arnasa;
gure panpina, ene bihotza,
gure printzesa, nire jolasa.

Giltzapean zintudan gordea,
ene alaba maitea.

Eguzkirik ezagutu ez duzun
ilargiaren mirari;
enbor gaztearen sustrai,
bizi nahiaren armari.
Zoraturik gauzkazun
sudur bat eta bi begi.

7 KOLORE

Zazpi kolorek zeharkatzen dute ortzia;
zazpi egunek zuzentzen gure patua,
ezustez margotzen gure zoria.

GORRIaren odola, beltzaren tristura,
BERDEaren esperantza, morearen ubeldura.
ZURIA eta elur bustia.

Zazpi kolore itsasoaren erdian zintzilik,
eguzkiaren arerio, euriari besoak zabalik.

Zazpi aberri, zazpi kolore,
zazpiak bat, agur eta ohore.

AZKENA

Bizitza badoa, iritsi da azkena,
itzulerarik ez duen trena.

Galbahe baten zirikitutik behera
erota baten emaitza, bizitzaren galera,
herioari harrera.

Ordulariaren orratz akituen
herdoilezko negarra, minutuen balantza,
betiko agurraren ezkaratza.

Bizitza badoa, udazkenak eraman gaitzala,
olerkia ere lerro bukaerak hil ohi duen bezala.

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

• GOZOTEGI
• OKINDEGI ARTESANALA
• TERRAZADUN
KAFETEGIA
• HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

Prebentzio arloan lan egin da San Markos egunean



Gazteei informazioa era originalean eman zaie

Urteak dira Hondarribiko eta Irungo Drogamenpekotasunen Prebentzio Komunitarioaren Lan Talde Teknikoak interes komune-ko egitasmo prebentiboetan elkarlanean dabiltzala, San Markos egunean, hain zuzen ere elkarlan hauetako bat burutzen da.

Urte batzuk dira, "Opila Egunean", beste jai giro eta espazio batzuetan bezala, dibertsioa arriskuekin loturik doala. Kasu honetan, bereziki, adin txikikoen alkohol kontsumoa kezagarria da, batez ere lehen kontsumoa gero eta adin goiztiarragoetan ematen delako.

Prebentzio Komunitarioko Lan talde teknikoetako adituek, ira-

gan urteetan emaitza onak izan dituen lan eredu berari jarraituz, eta bizi-ohitura osasuntsuak sustatzeko eta alkoholaren eta beste substantzien kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko asmoarekin bideratutako helburu berberekin, aurtun honako ekintza hauek garatuko dituzte:

1- Triptiko Informatibo berri baten edizioa, Lan Talde teknikoak mezu prebentiboekin burutu eta aipatutako helburuak biltzen dituen.

2-Aipatutako triptikoaren banaketa (8.000 ale guztira) Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetan, Udal Zerbitzu ezberdinetan eta Opila saltokietan.

3-Merkatari eta ostalariei gutun informatiboak bidaltzea, adin txikikoei alkohola saltzeari dagokionean euren erresponsabilitate legala gogoraraziz. (18/1998 Legea. Drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa)

4-Osasun Zerbitzu eta Udaltzaingoekin koordinazioa (Bidasoa Ospitalea eta Larrialdi Zerbitzuak).

Hondarribian, gainera, triptikoak banatu dira eskoletan, DBH eta batxilergoko gazte guztiei eta bertan tutoretza bat burutu da gogoetak egiteko asmoz. Aldi berean, gurasoei gutun bat zabaldu zaie honen berri emanez.

Ekimen hau, Arrisku Murrizketa ekintzen markoan kokatzen dela azpimarratu behar dugu, Drogamenpekotasunen Prebentzioko bi Lan Talde Teknikoek urte osoan zehar euren udalerritan garatzen dituzten Prebentzio Programetan jasotzen dena.



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL
Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88 20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

Gorputza zaintzeko gomendioak

Ileak, azalak eta azkazalek ehun berezi bat dute. Gure organismoaren estaldura bezala funtzionatzen du, eta guk uste baina garrantzi handiagoa dauka. Ezinbestekoa da gure gorputza ondo zaindu nahi badugu zenbait faktore kontuan izatea. Kolagenoa eta keratina dira kasu honetan ile, azal eta azkazalak egoki mantentzeko beharrezkoak diren ezaugarriak.

Ikerketa zientifikoek argi utzi dute nutrienteak era egokian hartzen baditugu, organismoan kolagenoa eta keratina sortuko direla, horrela aipatutako gorputzeko atal hauek biziraupena luzeagoa izan dadin. Aipatutako nutriente hauen artean, MSM (Metil-Sulfonil-Metano), C bitamina, zink-a, beruna, silizea eta L-Lisina eta L-Prolina aminoazidoak.

Keratinaz ari garenean, proteina batetaz ari gara, albuminoidea, elastiko eta erresistentea. Epidermisaren formazio batzuetako osagai izan ohi da.

Aldiz, kolagenoa, geruza dermikoetako proteina da, eta azala elastiko mantentzea du eginkizun nagusi. Azala leuntzeko kremetan erabiltzen da, nahiz eta efektu iragankorrek ere egiten den.

Amaitzeko, ez ahaztu ingurumenean eta Planetako beste lekuetan bizi direnen bizi-baldintzetan eragiten duten produktu-kopuru handia kontsumitzen dugu egunero, eta datozen belaunaldien etorkizuna hipotekatu nahi ez badugu, arduraz jokatu beharko

dugu. Baliabide naturalak gutxiago erabiltzea eta hondakinen isurpena murriztea dira ingurumenaren errespetuan asko lagun dezaketen erabakiak.

Kontsumo iraunkorrerako aukera ezberdinak dituzte herritarrek nahiz administrazioak: erosketa berdea, produktu ekologikoak eskuratzea, bidezko merkataritza eta berriz erabiltzea.



-SANITURI soja esnea 1 l: 1,95 €

2+1 dohainik eta 7+5 dohainik

-ECO-SALIN fruitu marmelada 325 gr: 3,68 €

1+1 dohainik

-LIMA gorri fruitu zukua + kaltzio azukerrrik gabe

1l: 3,65 €

1+1 dohainik eta 6+7 dohainik

-ECO-SALIN berde olibak 140 gr: 1,35 €

2+1 dohainik eta 3+3 dohainik

-BIOCOP intxaurreak 300 gr: 5,35 €

%50 unitate

-RAPUNZEL txokolate-intxaurreak, olo muesli

350 gr: 5,40 €

1 + 1 dohainik

-SOLE LUNA almendra pelatuak: 2,65 €

1 + 1 dohainik

-SANITURI soja flan 250 gr: 2,30 €

3 + 1 dohainik eta 4+2 dohainik

-Zereal-soja, banilla eta txokolate postre 500 gr:

3,95 €

3 + 1 dohainik

Arreta pertsonala

iHondarribian!

txuntxumela.
zure **SUPER BIO**

ETKEZ ETKEKO ZERBITZUA
HENDAIA-HONDARRIBIA-IRUN

943 641450

Santiago kalea, 33. Hondarribia

biotxuntxu@terra.es

EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



TERRA SIGILLATA

Terra Sigillatakiak dakarzkigu liburu honek. Bizi dugun ingurune gordin, nabar zalantzakor eta eusko-rren puskak.

(A)Saltus Vasconum,
(Des)Ager Vasconum,

(A)Mare Vasconum: fantasiako eta egiazko hiru espazio. Horietan barrena ikusiko ditugu Hitzaz Mendi elkarreko kideak etengabeko joan-etorrian, ahotsen anabatatik ahots bateratuaren bila. Oroimenaren eta errealtatearen pitxer hautsia berrosatu nahian.

Erakargarri bezain eztabaidagarria. Atseginez zein atsekabez, ezein irakurle ez hotz ez bero utziko duen liburua duzu honako hau.



BELA KABELATIK TERNUARA

Bernardo Atxaga idazlearen obra barruan Haur eta Gazte literaturak izan duen eboluzioa eta eragina aztertzen dira saiakera honetan.

Asteasun jaiotako idazleak beti tartekatuta ditu haur eta helduentzako obrak bere produkzioan eta ikerketetan bereizturik aztertu badira ere, nabarmena izan da bi esparru horien arteko harremana. Horrela, helduen obretan izan diren aldaketak, estilo, tematika, lexikoa... sarritan HGLren jaso ditu Atxagak.

Liburu honetan murgiltzen denak, beraz, Bernardo Atxagaren obra hobeto ezagutzeko parada izango du; 80ko hamarkadaren hasieratik gaur egunera emaniko eboluzioa eta genero ezberdinen artean izaniko harremana. Hori guzti hori oso egitura berezia duen obra batean, idazleak hitz egiten baitu hasieran bere obrari buruz eta obrak, amaieran, idazleari buruz



EZ DADILA EGUZKIA SARTU

Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramanean zituzten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina

baloia ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko. Agintariek, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriz, Euskadiko selekzioa osatuz eta European barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriarren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Histori-aurretik frankismora arte. Horretarako 15 historialariko

taldearen lankidetzan izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidagarritasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astizaran eta Txomin Sagarzazu.



PRAILEAITZ

Debako Praileaitz I aztarnategia babesteko liburu bat da. Artez betetako liburua, artea babesteko sortua. Eguno artistek sortua garai bateko artea ez galtzeko.

Praileaitz I liburua Praileaitzen Lagunak elkarteak argitaratu du, arlo guztietako 210 artistaren ekarpenekin, euren lanarekin eta euren iritziz argiarekin. Luxuzkoa da kanpotik atzo aurkeztutako liburua. 29 x 29 zentimetrokoa, 240 orrialdekoa, azal gogorrekua, hiru hizkuntzatan argitaratua, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez



HONDARRIBIKO BASERRIAK

Hondarribiko udalerriaren dauden baserri guztien bilduma da, agiri eta bizi izan ziren familia-zerrendarekin, eta abar... Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elosegi, Jose

Ramon Gebara eta Koldo Ortega hondarribiarrek egindako lan bikaina dugu. 546 orrialdetan gure baserri eta aitzindariak buruz zerbait gehiago jakiteko aukera paregabea. Auzoz-auzo gaur egun dauden eta egon diren baserrien informazio zabala topatuko duzu bertan, ongi dokumentatua gainera



OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

San Pedro 12 - HONDARRIBIA

Telf: 943 64 25 25



Lehiaketa berria Gazte Bulegoan

LOGO BERRI BAT SORTZEKO LEHIAKETA DEIALDIA

Eusko Ikaskuntzak Ei Gazte! lehiaketaren lehen edizioa jarri du abian. Edizio honetan gazteria sailaren logoa diseinatzeko deialdia egiten du elkarteak. Baldintzak gutxi dira eta saria, erakargarria:

- Gaztea izatea (16 eta 30 urte bitartean).
- Gaitasun sortzailea eta gustu estetikoa izatea.
- Epea: Maiatzaren 15a arte.
- **Saria: 1500 euro.**
- Lanak Eusko Eusko Ikaskuntzako Gazteria Sailara bidali behar dira (Miramar Jauregia, Miraconcha 48. 20.007 Donostia)
- Informazio gehiagorako:
www.eusko-ikaskuntza.org webgunean edo **943 31 08 55** telefonoan.

2008an ATZERRIAN INGELESA IKASTEKO "MEC" BEKAK

Estatuko Hezkuntza eta Zientzi Ministerioak, MEC, 2008. urtean atzerrian ingeles ikastaroak egiteko beken deialdia luzatu du.

Ikastaroak egiteko epea ekainaren 1etik azaroaren 30era da eta gutxienez 3 astekoak izan behar dira.
Beka bakoitza **1.650€**koa da.

ADINA: 18 urtetik 30era.
EPEA: martxoaren 27a

Info +: **www.infobeca.com** edo **www.mec.es**

ASTIALDIKO ZUZENDARIA IZATEKO IKASTAROA



Hezkide Eskolak Haur eta Gazteen astialdiko zuzendaria izateko ikastaroa antolatu du. Ikastaroaren egutegia 2008ko otsailetik maiatzera izango da eta Donostian izango da.

Informazio gehiago:

Hezkide Eskola, Heriz Pasealekua, 82. 20008 Donostia.

Tfnoa: 943 311474 / 311475 - Faxe: 943 311476

Posta elek.: hezkide@euskalnet.net - Web or.: <http://www.hezkide.org>

Prezioa: 250 €

Epea: Otsailaren 1a.



ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56



Terapeuta manual - Osteópata

- | | |
|-----------------------------|------------------------|
| ★ Masajes | ★ Esguinces |
| ★ Movilizaciones | ★ Vendajes funcionales |
| ★ Estiramientos | ★ Lumbagos... |
| ★ Tendinitis / Contracturas | |

Plaza San Marcos, 2 bajo (Puntal)
20280 HONDARRIBIA

Teléf.: 660 080 349

Nola izena du inguru honek ?



Heldu gara berriz ere irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Lehiaketan parte hartzen duen jende kopurua ikusita, irakurri eta parte hartzen duen jende asko dagoela ikusi dugu, eta guztiek gainera erantzun egokia ematen dutela ere. Martxo-ko alean jarritako galderari ia 60 pertsonak erantzun diote.

Oraingo honetan paraje hau non kokatuko zenuken galdetzen dizugu. Arraun Elkartetik eta Alamedatik oso hurbil dago, baina izen konkretu bat dauka, hala deitu izan zaio behintzat Hondarribian. Gogoratzen bazara, paper batean idatzi eta Udal Euskara Batzordera bidali, maiatzaren 15 aurretik.

Azken aleko galdera erantzun dutenen artean bat hautatu behar, eta zozketaren irabazlea **Marta Kanpandegi Martinez** izan da. Berari dagokio beraz bi pertsonentzako afaria Beko Errota jatetxean. Bigarren saria, eta beraz Udal Euskara Batzordeko liburu-sorta, **Marcos Lekuona** Alzarentzat izan da



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



eguerdiko menuak
sukaldaritza berria
eguneroko plater berriak
gaez, gure karta zabala, informala

telf.: 943 641 952

san pedro kalea, 79
20280 hondarribia

Arrantzaleen karroa XX. Mende hasieran



Hondarribiko toki berezi eta historikoen orrialdera iritsi gara. Eta gure herrian bi ezaugarri hauek batzen dituen gune bat arrantzaleen karroa da, "Carro Varadero" bezala ezagutzen duguna.

Gaur egun erabilerarik gabe geratu da karroa, urte askotan bertan ikusi ditugularik arrantzontziak. Hala ere, ez da beti horrela izan, 60. hamarkadan eraiki baitzen. Mende haserako arrantzaleek askoz aukera gutxiago zituzten bere lana egiteko, irudi honetan ikus daitekeen bezala.

Era honetako argazki ugari dauka "Hondarribia Atzo" liburuak. Hiriak 800 urte bete zituen urtean argitaratu zen liburua, arrakasta handia izan duena. 87. orrialdean aurki dezakegu iudi hau.

Era honetako argazkiak dituenak eta aldizkarian argitaratuak ikusi nahi dituenak, Udal Euskara Zerbitzura bidali, edo info@zifcomunicacion.com helbidera bidali.



okindegia • gozategia



kafetegia

San Pedro 49, bajo
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 641 995

Zuloaga, 8
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 111 656



M.A.G.
ASESORIA AGINAGALDE

San Pedro, 3 - Atzekaldea
943 64 03 66

GESTIOA:

- * KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
- ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
- * ASEGUROAK

Martxoa2007

JAIOTZAK MARTXOAN

1ean: **URKO Iturrioz Arabolaza**, Tolosako Jose Ramon eta Irungo Maitaneren semea.
 4an: **UXUE Lopez Bereau**, Cuencako Dionisio eta Irungo Deloraren alaba.
 8an: **ENEKO Gallego Otero**, Barakaldoko Iker eta Lima-ko (Peru) Olaga Magaliren semea.
 8an: **MADDI Aristizabal Etxeberria**, Hondarribiko Beñat eta Irungo Estibalizen alaba.
 13an: **AÑES Goikoetxea Amiano**, Hondarribiko Mikel eta Lezoko Maiderren alaba.
 13an: **MARTXEL Zuzaia Bereau**, Hondarribiko Igor eta Hondarribiko Eiderren semea.
 14an: **UNAI Zapiain Etxezarreta**, Irungo Ander eta Beasaingo Gurutzeren semea.
 15ean: **LOURDES Berrio Leston**, Hondarribiko Isabelen alaba.
 16an: **NAROA Ibañez de Gauna Ezkurra**, Hondarribiko Francisco Javier eta Hondarribiko Alazneren alaba.
 17an: **MARCO Fernandez d'Arlas Lazkanotegi**, Irungo Alvaro eta Hondarribiko Carolinaren semea.
 18an: **JUAN Iriarte Lekuona**, Irungo Jon eta Hondarribiko Ana Mariaren semea.
 18an: **TELMO Goikoetxea Quesada**, Hondarribiko Javier eta Iruñako Susanaren semea.
 19an: **AISHA Bartolini Etxegoien**, Mohamed eta Hondarribiko Elisabeteren alaba.



EZKONTZAK MARTXOAN

15ean: **ELOY Iglesias Caballero**, Irungoa, eta **AITZIBER Arrambide Garai**, Hondarribikoa.
 15ean: **TOMAS Garceo Conde**, Donostiakoa, eta **AINHOA Basterra Echeburu**, Hondarribikoa.
 15ean: **JEFFREY CHRISTIE De Souza Areizaga**, Dartford-koa (Ingalaterra), eta **MARGARITA Aierza Urrea**, Donostiakoa.
 29an: **GORKA Irigoien Aurtenetxe**, Donostiakoa, eta **NAIARA Sanpedro Cervera**, Donostiakoa.
 29an: **FELIX Martinez Estebas**, Logroñokoa, eta **MARIA ISABEL Rodriguez Garcia**, Zizurkilgoa.



HERIOTZAK OTSAILEAN

28an: **JOSE JAVIER Munduate Larrea**, Irungoa, 57 urte, Gibeleta etxadian.

HERIOTZAK MARTXOAN

1ean: **JOSE MARIA Siguero Goikoetxea**, Hondarribikoa, 72 urte, Axular kalean.
 1ean: **MARIA JESUS Aginagalde Aginagalde**, Hondarribikoa, 84 urte, San Gabriel egoitza.
 5an: **ANTONIO Etxaide Garmendia**, Hondarribikoa, 90 urte, Amute kalean.
 7an: **RAFAELA Calvo Garcia**, Zarzuela del Pinar-koa (Segovia), 92 urte, Juan Laborda kalean.
 10ean: **ARANZAZU Gorrochategui Bereciartua**, 73 urte, Gornutz- (Montaña) auzoan.
 13an: **ENRIQUE Aldama Perez**, Güel-ekoa (La Rioja), 81 urte, Marisantzenea kalean.
 13an: **GENOVEVA Amunarriz Ugalde**, Hondarribikoa, 80 urte, Belezarren Markes kalean.
 14an: **BENITA Martinez Otxagabia**, Alcanadre-koa (La Rioja), 85 urte, Zubieta kalean.
 18an: **ALEJANDRA Mateo Hernandez**, Los Rabanos-ekoa (Soria), 80 urte, Josu langile kalean.
 21ean: **MICAELA Bilbao Sorondo**, Bermeokoa, 85 urte, Soroetagain kalean.
 24an: **ULPIANA Aguinagalde Sanzberro**, Hondarribikoa, 84 urte, Donostia kalean.
 28an: **CARMEN Legorburu Irastorza**, Hondarribikoa, 71 urte, Irunen.
 29an: **MARIA MERCEDES Niño Julvez**, Irun, 84 urte, Zubieta kalean.
 30ean: **JOSE MARIA Iraola Martinez**, Hondarribikoa, 54 urte, San Pedro kalean.





FERMIN OLASKOAGA
jasotako datuak:

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK MARTXOAN

Altak:Jaiotzak: 13, eta kanpotik etorriak: 59.
Bajak:Hildakoak: 15, eta herritik joanak: 53.
Biztanle kopuru orokorra:16,487 bizilagun.

MARTXOKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 491 euskaraz,
1277 gaztelaniaz eta 29 bestelakoak. Guztira:
1950 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 14 euskaraz,
110 gaztelaniaz eta 4 bestelakoak. Guztira:
128 liburu.

Bazkide berriak: 13 gizon eta 20 emakume.
Horietatik 16 heldu eta 17 haur. Guztira 33.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

Euskeraz: SLEGGERS, Liesbet.- Katalin
udan.- Ibaizabal.

Gaztelaniaz: IBAÑEZ. - Mortadelo y
Filemón.- Ed. B.

Helduak:

Euskeraz: BOYNE, John.- Pijama marra-
dunaz jantzitako mutikoa.- Alberdania.

Gaztelaniaz: FOLLET, Ken.- Un mundo
sin fin.- Plaza y Janés.

MARTXOKO EGURALDIAREN DATUAK

Tenperaturarik gorena:24,7° C, hilaren 29an.
 Tenperaturarik beherena:1,5° C, hilaren 23an.
 Batz besteko tenperatura:11,2° C.
 Batz besteko hezetasuna:% 71.
 Euri-litroen kopurua:279,4 mm.
 Egunk euritsuena:hilaren 23an 38,4 mm.
 Euri indartsuenen uea:hilaren 26ko 17,1etan, 21,0 mm/orduko.
 Egunk euritsuak:17 egun.
 Elur egunak:0 egun
 Kazkabar egunak7 egun
 Ekaitz egunak6 egun
 Behe-lainoko egunak:0 egun
 Ihintz egunak:3 egun
 Zeru oskarbia:0 egun
 Zeru lainotua:12 egun
 Zeru estalia:19 egun
 Eguzki kopurua:93,5 ordu
 Batz besteko presioa:1016,1 milibar
 Presiorik gorena:1033,3 milibar, hilaren 5ean
 Presiorik beherena:997,8 milibar, hilaren 22an
 Haizea >55 Km/ord.13 egun
 Haizerik indartsuena:hilaren 4ko 21,12etan, 89 Km/orduko.

(Hondarribiko aireportutik jasoak).

joski

Lentzeria arropa
Haurrentzat arropa

Matxin de Artzu, 18
Tel.: 943 64 4846 - 20280 HONDARRIBIA





Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezen

1.982 - 2.007

25 URTE HONDARRIBITARREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrota.com



Sensor Aire	Separador viento	Mando a distancia	Panel deslizable Screen
Enrollable Screen	Panel deslizante Tela	Veranda	

DOBLE A
www.doble-a.com

Tel: 943 667 003
Amute, 8 bajo C (Frente Aeropuerto) - HONDARRIBIA (Gipuzkoa)

ERKA SUMINISTROS ELECTRICOS	ERKA OSAGAI ELEKTRIKOAK
---	---

C\ Salvador Etxeandia, 6 Bajo Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48 20304 Irún